

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BERROETA-ALDAMAR SL-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2005, 2006 ETA 2007.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), Eusko Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta, Berroeta Aldamar, SLren 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldietako txostena mamitu du. Txostena 2010eko martxoaren 4an HKEEren Osoko kideen adostasunez onetsi da.

Fiskalizazio txostenak legezkotasuna berrikusten du ondasun eta zerbitzuen kontratazio gaietan, jasotako diru-laguntza gaietan eta baita, ezargarri diren bestelako legezko arauen ezarpena ere. Halaber, urteko kontuak ezargarriak zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatu da.

Legezketasunaren atalean, Epaitegiak iritzia plazaratu du Berroeta Aldamar, SLren jarduerari buruz eta bertan adierazten da zuzentasunez bete dela indarreko arautegia 2006 eta 2007ko ekitaldietan; ez, ordea 2005eko ekitaldian. Iritzi honen gainean hainbat salbuespen egin dira, txostenean bertan zehaztu direnak.

Sozietateak 2007ko azaroan Cristóbal Balenciaga Fundazioarekin batera salaketa aurkeztu zuen Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko fiskaltzaren aurrean, Sozietatearen Gerente eta Fundazioaren Lehendakariorde izan zenaren aurka, 2001 eta 2005 bitartean egindako hainbat jarduera zirela eta; horiek guztiak, Fundazioak Museoaren eraikuntzaren diseinua eta barne-diseinuaren proiektua idazteko kontratatutako sozietatearen ahaldun eta akziodun bakarrarekin lotuak. 2008ko azaroan Azpeitiko 1 zk.ko Instrukzioko Epaitegiak onartu egin du Fiskaltzak Gerentearen aurka, aipatutako sozietatearen jabearen aurka eta zerbitzuen beste esleipen hartzaile baten aurka, administrazio desleial, bidegabeko jabetze, dokumentuak faltsutze, delitu sozietario, intrusismo eta ondasun publikoak bidegabe erabiltzearen ustezko delituengatik.

2005eko azaroan Sozietatearen Administrazio Kontseiluak onartu zuen Fundazioak Balenciaga Museoaren 2. Fasea eraikitzeke ordura arte hitzartuak zituen indarreko kontratu eta esleipen guztiak bere gain hartzea; ordea, ez dago kontratu eta esleipen horien xehapenik, ez horren gaineko agiri juridikorik ere.

Kontratazioari dagokionez, txostenak ezargarria den legedian hainbat ez-betetze azpimarratu ditu, eskatzen den publizitate ezak eragindakoak batik bat.

Urteko Kontuei dagokienez, HKEEK aldeko iritzia eman du hiru ekitaldietan kontuaren aurkezpen eta edukiari dagokionez, baina hainbat akats azpimarratu ditu. Adierazgarrien direnen artean, hiru ekitaldietan errepikatzen den hura, Udalak Balenciaga Museoaren 2. Fasea eraikitzeke eskualdatutako lursailaren gaineko azalera eskubidearen salmenta balioa ez erregistratu izana da; bigarrena, Sozietateari fakturatutako hainbat lanen enpresa esleipendunaren jabearen aurka aurkeztutako eta goian aipatutako kereilaren azkenak urteko kontuetan eragin ditzakeen ondorioen gaineko zalantza da.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz.

Azkenik, Txostenari hainbat Eranskin argigarri txertatu zaizkio.